


Irugarren Ordena
edo
Prantziskotar Irugarren Senidetza



Bere Erregla ta Barkapenak

IV
922





IRUGARREN ORDENA

EZAUPIDEA

Izena

Aita Prantzisko donearen Irugañen
Ordenako habitua jantzi zuan (1).

Silua

Bixitatzalea

Profesatu zan

Bixitatzalea

Ministroa.

Silua

Idazkaria.

(1) Eñiaren izena, ta urte ta ilaren zen-
bakiak ipintzen dira emen.

M-8709
R-36301

ATV
18922

Irugarren Ordena

edo

Prantziskotar Irugarren Senidetzako

Araudia (Erregla) eta Barkapenak

Aita Jose Maria Azkuek


Eratuta

BIGARREN IRARKALDIA



« ARANZAZU » Aldizkariaren Irarkolan

1934



ARAUDIA

LENENGO IRAKURBURUA

*Nortzuk sartu ditezken Senidetzan
eta beren eginbeñak*

I. Senidetza onetan sartuko danak amalau urtetan gorakoa izan bear du, oitura onekoa, sinismen garbikoa batez ere, eta Ama Eliza doneari dagokion begirune ta maitetasuna agertzen diona.

II. Emakume ezkonduarik bere senañaren baimenikabe ez bedi sartu, *konfessore* jaunari besterik ez baderizkio beintzat.

III. Senidetzan sartu diranak eraman bitzate soñean *eskapulario* txikia ta sokatxoa, oi dan bezela, bestela ez diote balioko Senidetzako *grazi ta pribilejioak*.

IV. Senidetzan sartu diranak, bai gizon bai emakume, urtea bete arte iraun bezate ikastaroan (nobiziaduan) eta urtea beteta *profesatu* bitez bear bezela,

Ez medatu, ta ez zintzilikatu, ta ez probatu.

*1) Pe erana, bildura...; ozeak ezin zezan.
erak dandela arundia. es. 100.*

(1) *En un arzo de novicia...*
don castellano
— 6 —
PeRatu aurritala aspian ez.

(9) Jaungoikoaren Legeko ta Ama Elizaren aginduak beteko dituztela itz-emanaz; eta Araudiaren kaltez egiten dituzten utsegiteagatik ematen zaien oben-nekea (penitentzia) beteko dutela esanaz.

BIGAÑEN IRAKURBURUA

Bizikera

I. Irugañen Senidetzakoak jazkeran eta gauzetan, bizi bitez bakoitzari dagokion giñoan (neuriz).

II. Dantza nastu ta antzezki garbiak ez diran lekuetatik aldendu bitez, eta neurigabeko jan-edanik ez bezate egin.

III. Jan edo edan bear dutenean izan bedi bear dan neuriz, auretik eta jan ondoren Jaungoikoari otoi-egitea aztu gabe.

IV. Ama Mariaren Sorkunde garbi ta gure Aita Prantzisko donearen egun-auretik barau egin bezate, ta antziñako Iru-gañoak bezela asteazkenetan aragi-uztea (bijilia) ta ostiraletan barau egin nai badute, obe.

X V. Ilero obenak aitortuta (konfesatuta) Jauna artu bezate.

fin principal de todo

garai bat ankeratu.
eguneroko egiteak.
VI. Irugarangoak gaizki egon ezik, amabi aitagure, agur Maria ta gloria esan bitzate; apaizak ordea ta Ama Mariaren *Oficio Parvo* deritzan eliz-añen diak esaten dituztenak egin bear au, beste gabe, betetzen dute.

VII. Egin dezatekenak, *testamentua* garaiz egin bezate, beren ondasunak bear bezela utziaz. *actos de humildad y desprendimiento*

VIII. Beren bizikera onaz alegiñak egin bitzate besteak bide onera ekartzeko eginkizun eta gauza onak egiñaz. Ez bedi sartu beren etxeetan onbidea afixkuan jañi dezateken liburu ta egunerokorik (periorikorik), eta ez bezaiete irakurtzen ere utzi beren mendekoei. *fin*

IX. Elkarékin eta bestien artean bizi bitez ongina ta maitetasunean. Beren aldetik, al danez, pakeak egin bitzate asefe daudenen artean.

X. Ez bezate iñoiz ziñik (juramenturik) egin beaferkoa izan ezik. Itz loi ta jolasketa ez garbiak urtikan-egin. Añats-ero beren baita (kontzientzia) aztertu (esamiñatu) bezate, ta utsegiteren bat arkitzen badute, biotzez damu bitez, ta oben-nekez zerbait egin bezate.

XI. Al dutenak meza santua egunero entzun bezate. Senide-buruak ots-egiten duanean, guztiok bildu bitez ileroko batzaletara.

XII. Eri ta beartsuei laguntzeko, ta elizkizunak ainbat ongien egiteko, bakoitzak eman beza al duan *limosna*.

XIII. Senidetzako buru berak egingo die ikustaldia gaxo dauden anai-afebai, edo, berak ezin badu bialiko die norbait maite-eginkizun au betetzeko. Eta gaitza azkenetara dijoala badirudi, aŕen egingo dio elizakoak artu ditzan.

XIV. Irugaŕengo-zanaren ilelara (entierora) joan bitez leku artako anai-afebak, baita erbestekoren bat an arkitzen bada ere; eta ildakoaren alde esan bezate guztiok bost amafeŕko agurtza (eroriorioa). Mezaŕdunak mezetan, eta mezaŕdun ez diranak Jauna artuaz al badute, otoi-egingo diote Jaungoikoari ildakoaren alde.

IRUGAREN IRAKURBURUA

Eginbideak (karguak) Bixita ta Araudia Bera

I. Senidetzako eginbideak anai-añebai batzañera deituta, batzañean ortarako autuei eman bezazkie. Autuak diranak iru urte iraungo dituzte beren eginbidietan. Ez beza iñork bidegabez utzi dagokion eginbiderik, ezta ere laga betegabe bear dan bezela.

II. Kontu-artzaleak (bixitadoreak) begiratu beza, ondo gordetzen dan ala ez Araudi (Eñegla) donea. Onetarako urtero, ta nai bada geiagotan, joan bedi Anaidia ikustatzera, ta Senidetzaburuari ta anai-añebai deiturik, batzaña egin beza. Kontu-artzaleak bere itzaldi ta agindua-kin gogaraziko balio bere eginbeañen bat irugañengo norbaiti, edo-ta, oben-nekeren (penitentziaren) bat emango balio apala izan bedi, ta bete beza eman zaion oben-neke osasungaña.

III. Kontu-artzaleak Lenengo edo Iru- gañen Anaidiko (Ordenako) Aita - prai- leak izango dira, beren Aita nagusiak

izendatuak; oek izendatzera beartuak daude gai-onetarako eskatzen badira. Me-
zaduna ez danik, ez diteke kontu-artzale izan.

IV. Esagiñak (obedienteak) ez diran irugañengoak, eta bai kaltegañiak, beren eginbeñak betetzeko, bi edo iru aldiz gaztigatuak (abisatuak) izango dira; beren bizikera ondu nai ez badute, baita Senidetzatik botiak ere.

X V. Araudi onetako aginduren bat austen duanak, jakin beza ordea ez duala uts-egiteoñekin obenik (pekaturik) egiten, uts-egite ori bera, Jaungoikoaren Lege ta Ama Eliza donearen kaltez ez badago beintzat.

VI. Norbait arkituko balitz Araudi onen aginduren bat ezin gorderik, Prantzisko donearen Lenengo edo Irugañengo praile nagusiak, eta oek bialtzen dituzten kontu-artzaleak dira eginbear ortatik azketsi, ta beste zerbait jartzeko eskubidea dutenak.

Azken-orialdetako oarpenak ikusi bitez.

(1) Azken R 34

J A T O R B U R U A

1221-gaŕen urtean Asis'ko Prantzisko donea Toskana-erkian gogonketan izlari (predikatzen) zebilela, Poggibosi-efian gaztaroan lagun izandako salerosle batekin arkitu zan. Lukesio zuan izena.

Santuaren antz-bidea arturik gogoz beartsu izateko asmoak artu zituan, eta beartsuakin esku zabalekoa agertzen zan, naiz bere emazte Bonadona andereak aseŕe egin. Senaŕaren onbide ta ikasbideari ezin gogor-egiñik, azkenean ere onera eman zuan andereak bere izenak zion bezela.

Orduan esan zioten senar-emazteok Aita Prantziskori, beren bizikerari zegokion bezela, on-onak izateko bide egoki bat erakutsi zezaiela.

Prantzisko'k erantzun zien:

—«Irugaŕen Senidetza egiteko asmoa artu det. Senidetza onetan sartu ditezke ezkonduak ere, ta Jaungoikoaren mirabetza bear bezela egin». Ondo artu zuten senar-emazteak Prantzisko'ren irizpena, ta soñeko aŕe bat jantzirik, eta geŕia korapildun lokaŕi batez lotuta, asie-

ra eman zioten Senidetza done oneri. Aita Serafindařak onbidietara ainbat anima ekaři zituan bezela Lenengo ta Bigařen Ordenen bidez, onbidera ekaři nai izan zuan mundu guztia ere Senidetza onen bidez.

Berealaxe zabaldu zan eři guztietan. Gazteak eta zařak, aberats eta beartsuak, jakintsuak eta ez-jakiřak, eřege ta aundizkiak, apaiz - *obispo* ta Aita Santuak, ezin zenbatu ala dira bere asieratik oraiñarte Prantziskoren lokařiz beren geřia lotu izan dutenak, ikasbiderik edeřenak emanaz, eta Eliza Ama berari asko lagunduaz. Aldarietan dauden Santuak ere ez dira gutxi.

GORALTZAK

Au dala-ta goraldu ta *graziz* aberastu izan dute Aita Santuak. IX Gregorio'k «Makabeo'tařak» deitzen zien Irugeařendařai. Ordutik onara beřogei ta beđeratzi dira Senidetza onetzaz goralpe-
 X
 nez itz-egin duten Aita Santuak. Oen artetik azkanaldi oetako XIII Leon bereziko degu, esakun eta *Dekreto* askotatik goraltzak ateratzen ditugula:

— 13 —

«Irugañengoai nere seme maitiei bezelaxe nai diet, beren bizikera kristau onaren bizikera dalako. Au dala-ta saiatu naiz ainbat Ordena au goraldtu ta zabal-tzen» (1886).

«Irugañen Ordena onen bidez mundua salbatu bear degula derizkiot» (1886).

«Erakutsi zaiezute zañei ta gaztiei Irugañen Ordena guztientzat ona dala» (1897).

«Kristau guztiak Irugañen Ordenan sartuta ikusi nai nituzke».

«Irugañen Ordenaren alde lan-egitea, luñean onbideak zabaldtu ta indartzea da» (1895).

IRUGAÑEN SENIDETZA EGIZKO ORDENA

Ez da edozein anaidi (kofradi) bezela Prantzisko doneak ipiñi zuan Senidetza, egizko Ordena da, Aita Santuak eta Elizbatzañak diotenez. ¿Zer dala-ta?—Bere Araudia, jazkera (habitua), *nobiziadua ta profesia*, añendiak (eñezkoak) eta abar, bai dituelako.

*No puede pertenecer a los orde-
nes terciarios q. es orden.*

BARKAPENAK

(*Induljentziak*)

1. Obena (pekatua) barkatuta gero, Jaungoikoaren aurrean obenari dagokion neke-aldikoaren azkespena da barkapena edo *induljentzia*. Elizak ematen du azketsiz bezela bizien alde, ta laguntzaz bezela ildakoen alde (C. 911).

2. Barkapena bi eratara da, osoa ta ez oso: a) osoa baldin, oben-neke osoa barkatzen badu, eta ez osoa oben-neke osoa barkatzen ez duanean.

b) animen alde emanak edo ez. Aita Santuak ematen dituan guztiak, ildakoen alde izan ditezke, besterik esaten ez bada beintzat (C. 930).

3. Barkapenak irabazteko:

a) Jaunaren adiskide izan bear da, azkeneko egintza bukaeran beintzat.

b) irabazteko gogoa izan, naiz une artan ez oroitu.

— 15 —

k) agindutakoa bete barkapena emanik dagon aldi ta eran (C. 925).

4. Agintzen dana geienean da:

a) aitortza (konfesioa). Au egin ditek barkapena emanik dagon egun be-rean, edo zortzi egun aurretik edo atzetik (C. 931-1).

b) Iru urenai ta bederatziurenen egin-kizunei emanik daudenak irabazi ditezke edozein egunetan, ondorengo zortzi egun-en batean aitortuta (C. 931-2).

c) Ibero bi aldiz gutxienez aitortzen diranak, eta bost egunetan astean Jauna artzen dutenak irabazi ditzateke aitortza gabe Jubilioa izan ezik, beste eginkizunak eginaz (C. 931-3).

JAUNARTZEA

a) Jauna artu ditek barkamen egunez, egun-aurretik, edo-ta, egunari dañaien beste zazpi egunetan (C. 931-1).

b) Iru-uren eta bederatziurenatarako eskatzen dan Jaunartzea, egin ditek, iru edo bederatzi egunen bafuan (C. 932-2).

— 16 —

ELIZAREN IKUSTALDIA
(*Bixita*)

- a) Eliza izendatua badago, au ikustatu bear da, bestela edozein eliza edo *kapila*.
- b) Egun aurreko eguarditik beste eguneko gaberdiarte (C. 923).

OTOITZA

- a) Geienez itzez egin bear da.
 - b) Agindua ez badago zer otoi - egin bear dan, nai ainbat egin diteke.
5. Ikustalditan esan bear diran otoi-
tzak:
- a) Elizen bateri ikustaldia egiteko agintzen bada, ta otoiz berezien bat bertan egiteko, biok egin bear dira;
 - b) egun berean barkapen bereziak irabazi nai badira, ta oek irabazteko ikustaldia ta otoitza agindurik badaude, ainbat ikustaldi ta otoitz egin bear dira, nai dituan barkapenak irabazteko.

— 17 —

6. Barkapen bereziak ematen bazaizkio gauza bateri (Gurutze, *medala* eta abar) ezin batean irabazi ditezke barkapenak, agindurik dagona betetzen ez bada aldi bakoitzean, aitortza ta jaunartzea izan ezik, edo-ta besterik esaten ez bada (C. 933).

7. Ezin ditezke irabazi barkapenik, aginduz bete bear dan eginkizun baten bidez, besterik esaten ez bada beintzat. Baña irabazi ditezke aitortzan, oben-nekez ematen diran eginkizunen bidez, eginkizun oek barkapena badaramate (C. 932).

8. Agindutakorik norbaitek ezin egin balezake, *konfesoreak* alda lezaioke beste eginkizun batean (C. 935).

O A R A

Gogoan euki beza norberak XI Pio Aita Santuak agindu duana. Barkapenak irabazteko *toties quoties* agindurik badago eliz-ikustaldia ta ikustaldi ofetan otoitza; sei aitagure, sei agur Maria ta sei gloria bear dira barkapen osoa irabazteko ikustaldi bakoitzean. Bestela nai dana.

BARKAPEN OSOAK ZEINGABEKO EDOZEIN EGUNETAN (1)

1. Senidetzako soñekoa artzen danean.
2. İlero egiten dan itzaldian.
3. Profesatzen dan egunean.
4. Urteko astearteetan, Antonio donea-
ren elizkizunetan.
5. Zortzi egunetan gogo-jardunak egin
ezkero.
6. Il-lařitan Jesus'en izena e s a n d a
itzez ez bada biotzez.
7. Irugařengo apaizak bere meza be-
řian. Beste Irugařengoak Lenengo e d o
Irugařengo Ordenako apaizen meza be-
řian.
8. Irugařengo Ordena dagon elizako
Santu-nagusi egunean. Aita Santuaren
naierako otoi-egiñaz elizan.
9. I r u Ordenetako edozein elizetako
santu-nagusien egunetan.
10. Bi aldiz ilero norberari derizkion
egunetan.

Oařa. — Barkapen auek irabazteko Ai-
tortza egin eta Jaunartu-bear da.

(1) Acta Ordinis Minorum, 1923.

— 19 —

BARKAPEN OSOAK EGUN JAKIÑETAN

*Auek irabazteko aitortu ta Jauna artu ta
Aita Santuaren naierako otoi-egitea eska-
tzen da Iru Ordenetako elizetan, edo
Irugañen Ordena dagon elizan.*

1. Jesus'en izen done-donearen eguna.
2. Garizumako ostiral batean.
3. Epailaren lenengo ostiralean.
4. Ostegun Santuz.
5. Pasko egunez.
6. Jose donearen Zaindaritza egunez.
7. Jaunaren Igokunde (Asentzio) egu-
nez.
8. Irutasun done-donearen igandean.
9. Pentekostes egunean.
10. Korpuz egunean.

I L E R O K O A K

ILBELTZA

1. * *Jesus'en Bilebaiketa* (Urte Beñi).
Oarpena. — Zein Ordenetakoak diran
L. B. I. izkiaz bereziko ditugu; birjiña,
alarguna, konfesorea ala martiria, b.,
alar., ait. m. izkiaz.

— 20 —

2. Anjela Zoriontsu, alarg. I. O.
6. * Jaunaren Agerketa.
16. Lenengo Ord. lenen-martiriak, Berardo ta lagunak, m. L. O.
19. Bernardo de Corleon, Zoriont. L. O.
28. Odoriko, Zoriont. ait. L. O.
30. Jazinta de Mariskotis donea, b. B. O.
31. Luisa de Aldertoni Zoriont., b. I. O.

OTSAILA

1. Beridiana Zoriont., b. I. O.
2. * Ama Mariaren elizan sartzea.
4. Jose de Leonisa donea, ait. L. O.
15. Andres de los Kondes Zoriont., ait. L. O.
19. Plazenzia'ko Konrado donea, ait. I. O.
22. Kortona'ko Margarita donea, I. O.
26. Franzia'ko Isabel Zoriont., b. B. O.

EPAILA

5. Juan Jose de la Cruz donea, ait. Lenengo O.
6. Koleta donea, b. B. O.

— 21 —

9. Bolonia'o Katalina donea, b. B. O.
19. * Jose donea, A. M. Ezkonkide garbi-
garbia.
22. Bienbenido donea, ait. L. O.
25. * Ama Maria'ren Deikundea.
26. Diego Jose de Cádiz Zoriont., ait. Le-
nengo O.
28. Juan Kapistrano donea, ait. L. O.

JORAILA

2. Leopoldo de Gaikis Zoriont., L. O.
4. Palermo'ko Benito Zoriont., ait. L. O.
16. Gure Aita Prantzisko'ren Oroipen go-
ragafia ta Benito Jose Labre Zorion-
tsu, ait., eta beste barkapena ziñitzak
(botoak) beñituta.
23. Asis'ko Jil Zoriont., ait. L. O.
24. Fidel de Sigmaringa donea, m. L. O.
28. Lukesio Zoriont., lenengo I. O. eta
Pblo de la Cruz donea, ait. I. O.
30. Urbino'ko Benito Zoriont., ait. L. O.

ORILA (Maiatza)

13. Pedro Regalado donea, ait. L. O.
17. Paskual Bailon donea, ait. L. O.
18. Felix de Kantalizio donea, ait. L. O.

— 22 —

19. Ivon donea, ait. I. O.
20. Sena'ko Benardino donea, ait. L. O.
21. Biterbo'ko Crispin Zoriont., ait. L. O.
30. Fernando donea, España'ko Éregea,
ait. I. O.
31. Anjela de Merici donea, b. I. O.

GARAGARIĀ

1. Nicosia'ko Felix Zoriont., ait. L. O.
2. Humiliana Zoriont., alar. I. O.
3. Hispelo'ko Andres Zoriont., ait. I. O.
Antonio donearen bederatziuñen egu-
netako batean.
13. Padua'ko Antonio donea, ait. L. O.
20. Mikelina de Pésaro Zoriont., alargu-
na I. O.
24. Juan Bautistaren jaiotza (donea).
29. * Pedro eta Paulo apostoloak.

UZTAIĀ

2. * Ama Maria'en ikustaldia.
8. Portugal'ko éregin Isabel donea., alar.
I. O.
9. Nikolas donea ta lagunak, m. L. O.
10. Beronika de Julianis donea, b. B. O.
13. Prantzisko Solano donea, ait. L. O.

— 23 —

- 14. Buenabentura donea, Erakuslari ta Kardenala, ait. L. O.
- 21. Anjelina de Marciano Zoriont., alar. I. O.
- 22. Brindis'ko Lorenzo donea, ait. L. O.
- 26. Ana donea, Ama M. Ama.
- 27. Maria Magdalena, b. B. O.

DAGONILA (Agostua)

- 2. Gaur iru Ordenatako elizak *bixitatz*en diran aldi bakoitzean «*toties quoties*» barkapen osoa.
- 4. Domingo de Guzman donea, ait-irazl.
- 7. Agatanjelo ta Casiano Zoriont. m. L. O.
- 12. * Asis'ko Clara donea, b. irazl. B. O.
- 15. * Ama M. Jasokunde (Asuntzio) eguna.
- 16. Joakin donea, Ama M. Aita.
- 17. Roke donea, ait. I. O.
- 19. Luis Tolosa'ko Obispoa, ait. L. O.
- 22. * Ama Maria'ren Zazpi Atsegiñak.
- 25. * Luis donea, Frantzia'ko Eregea, Irugearen Ordenako Zaindaria.
- 26. Ofida'ko Benardo Zoriont., ait. L. O.

IRAIĻA edo Agoŕa

4. Biterbo'ko Rosa donea, b. B. O.
8. *Ama Maria'ren jaiotza. Kupertino'ko Jose donearen, ait. L. O. jaiauíeko bederatzi egunetako baten.
15. A m a Maria'ren Zazpi Atsekabeen eguna.
17. *Aita Prantzisko donearen Zauriezartzea.
18. Kupertino'ko Jose donea, ait. L. O.
24. Seberino'ko Pazifiko donea, ait. L. O. — Gure Aita Prantzisko donearen bederatziuíen egunetako batean.
27. Elzeario donea, ait. I. O.

URIĻA

2. Aingeru Zaindariak.
4. *Asis'ko gure Aita Prantzisko, Iru Ordenen Irazlea, edo úengo zortzi egunetako batean.
6. Bost zauri eraman zituan Prantziska donea, b. I. O.
10. Daniel eta lagun doneak, m. L. O.
11. Gure Aita Prantziskoren Zortziuíena.
12. Montegranario'ko Serafin donea, ait. L. O.

— 25 —

19. Alkantara'ko Pedro donea, ait. L. O.
26. Potenza'ko Buenabentura Zoriontsua,
L. O.
30. Akrio'ko Anjel Zoriont., L. O.
31. Florentzia'ko Tomas Zoriont., L. O.

AZAROA

2. Animen eguna (*toties quoties*).
13. Alkala'ko Diego donea, ait. L. O.
14. Josafat donea, obis. eta m.
16. Asis'ko Ines donea, b. B. O.
19. * Isabel donea, Hungria'ko Éregiña,
Irugañengoen Zaindari, edo zortzi
egunetako batean.
21. * Ama Maria'ren elizan aurkeztea.
26. Porto-Maurizio'ko Leonardo, ait. Le-
nengo O.
28. Marka'ko Santiago donea, ait. L. O.
29. Ordenako Santu guztiak. Beste bat
ziñitzak (botoak) beñitziak. Sorkunde
jai-aufetik dauden bederatzi egune-
tako batean.

LOTAZIĀ (Abendua)

1. Ordenako ildakoen egunean.
8. * Sorkunde egunean. Iru Ordenen
Zaindaria da.

— 26 —

9. Delfina zorient., Elzeario donearen emaztea, I. O.
12. Gure Aita Prantzisko donearen korputz-arkitzea. Jaunaren jaiotz-aufetik dauden bederatzi egunetan lenengo ta azkenekoa.
25. * Jaunaren Jaiotza.

AITORTU TA JAUNARTU GABE
IRABAZI DITEZKEN BARKAPENAK

1. Jesus ezin esan duenak aoz edo biotzez, damutu utsarekin.
2. Iltzerako prantziskotañen *habitua* eskatu ta oi gañean daukatenak.
3. Zazpi amañeko Agurtza (Eñosarioa) X Leon Aita Santuak 1517'gañen urtean «Exponi nobis» asten dan eskutitzan, XI Inozentzio'k eta beste Elizako Buruak barkapen osoa ematen dute «toties quoties» zazpi amañeko agurtza esaten dan aldi bakoitzean Asis'ko Prantzisko donearen iru Ordenetan sartuak daudenen alde, ta berak nai baldin badute barkapen oriek irabazi ditzateke Garbitokiko animen alde. Onetarako ezta

— 27 —

oben-aitortza ta Jaunartze beařik, eta
pusketan esan da ere berdin da, nonai
ta noiznai.

Esateko era. — Gurutze Santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Ama graziazkoa ta eřukiořa, gure
etsaiengandik zaitu gitzazu orain eta gu-
re eriotzako orduan. Amen.

Lenengo Misterioa.—Seme-Jaungoikoa-
ren gizon egitea. (Aitagurea, amar Agur-
Maria ta Gloria). *Bigařen Misterioa.*—
Ama Mariak bere lengusu Isabel donea-
ri egin zion Ikustaldia. *Irugařen Miste-
rioa.*—Jesus'en Jaiotza. *Laugařen Miste-
rioa.*—Iru Eřegeen guřegitea. *Boskařen
Misterioa.*—Jesus galdu ta Elizan arki-
tzea. *Seigařen Misterioa.*—Jesus'en piz-
tuera. *Zazpigařen Misterioa.*—Ama Ma-
ria zeruratzea. — Ondoren bi Agur-Ma-
ria, uste denez 72 urte luřean igaro
zitualako ta azkenez aitagure bat Aita
Santuaren naierako. Barkapenak irabaz-
teko ezta *letaniak* esan beařik, baña
egoki izango da.

ONERASPEN ONEN JATORBURUA

Bein lorez egindako burestun bat egunero A. Maria'ri buruan ipintzeko oitura zuan gazte bat sartu zan gure Ordenan (Wadingo E. X.-1422). Naigabe ta min aundia ematen zion, oitura zuanez, omen ori bere Ama maiteari emangabe bizi beařak, praileartean ořelakorik ezin zezakelako, ta Ordena utzi ta alde-egiteko asmoa artu zuan. Bere asmoa betetzeko jaři zanean, Ama Maria berak ditzuraz beteta agerturik esan zion: «¿Zer dala-ta zaude ořen itun eta dabilzkizu buru bide oriek? Atsegin izan zait egunero lore beřiz eginda buruan ipintzen zinidan burestuna; baña atsegingařiagoa izango zait, omen ořen ordeztu, buruan jartzen baldin badidazu nere bizialdian izan nituan zazpi Atsegiñen burestuna. Atsegin bakoitzean amar Agur-Maria ta Aitagurea esanaz. Lorezko burestunik edeřena auxe da». Eta alaxe egin zuan gazteak.

Bein ordea aita *maixuak* zer egiten ote zuan praile-gaiak ikusi nairik, gelako ate zuloatik zelatan jaři zan, eta oartu zuan

gaztea belauniko mar-mar ari zan artean, Aingeru bat ufezko ari batean amar arots eder eta lili bikain bat zartzen zijoala ta ori zazpi alditan; eta ari luze ura burestun eran bilduta gaztearen bu-ruan ipiñi zuala. Aita *maixua* ařituta gelditu zan, eta etzekian zer adierazi nai zuan ikuskari arek, eta gaztea beragana deituta esku-mendez agindu zion, aingeruakin gertatu zitzaion guztia adierazo zezaiola. Orduan bada esan zion, ze estualdiak izan zituan... eta Ama Mariak agertu zion guztia. Onela zabal-tzen joan zan zazpi amaíreko agurtza gure Ordenan.

Ama Maria'ren biotza atsegiñez bete zuten gertaldiak oetxek dira: I. Espiritu Santuaren egitez Birjiña izateari utzi-gabe, Jaungoikoaren Ama izango zala, aingeruak esan zionen. II. Bere len-gusu Isabel donea ikustera joanik, onek zoriontsua izango zala iragañi zionean Jaungoikoaren Ama zalako. III. Belen-go estalpean bere Seme-Jaungoikoa ikusi zuanean. IV. Iru eíregeak bere Seme-Jesus'en aúrean auzpeztu ziranean. V. Je-sus galduta irugañen egunean lege-ja-

kintsuei erakusten Jerusalem'go elizan arkitu zuanean. VI. Jesus eriotzaren loka-
riak azkaturik ilen artetik piztuta ikusi
zuanean. VII. Bere anima gorputzarekin
baturik zeruratu zanean, an zeru ta lu-
ren Éregiña izateko.

Len Ama Elizaren zorion-alde bost,
eta Aita Santuaren naiara bat, sei Aita-
gure, Agur-Maria ta sei Gloria edozein
lekutan esanaz, Irugañen Ordenakoak
barkapen osoak irabazten zituzten: *a*)
Éromako zazpi Jauregietan (Basiliketan)
Misalak «Statio» izenez, zeintzen dituan
egunetan; *b*) «Toties quoties» Éroma'ko
elizetan, Jerusalem, Santiago de Com-
postela ta Portziunkulan emanik dauden
barkapen osoak, ez batara, «cumulati-
ve», askok uste duten bezela, aldi ba-
koitzean baizik...

Baña orain, XI'gañen Pio Aita Santua-
ren aginduz, amar urteko barkapenak
bakañik irabazten dituzte aldi bakoitze-
an, eta egunero esan ezkerro, ilean bar-
kapen osoa. (Açta Apostoliçæ Sedis,
22-IV, 1933).

— 31 —

Irugañengoak irabazi ditzaken barkapen ez osoak ezin zenbatu ala dira, ta oregatik emen ez ditugu jartzen.

AZKESPEN OROKOÑA (ABSOLUZIO GENERALA)

Irugañengoak eta Prantzisko donearen seme-alabak artu dezateke Azkespen Orokoña, * izar onekin arkitzen diran ilero-ko barkapen egunetan.

Ikusi bitez 17'gañen ofialdi ta ondorengoak. Angoaz gañera artu dezateke: 1. Epailaren lenengo Ostiralean. 2. Eñamu egunean. 3. Aste Santuko egun guztietan. 4. Pasko egunez. 5. Jaunaren Igokundez (Asentzioz). 6. Espiritu Santuaren Pasko egunez. 7. Irutasun donearen egunez. 8. Korpus Kristiz. 9. Jesus'en Biotzaren egunean. 10. Lau aldiz norberak nai duanean. 11. Autakuntza (Elezio) aurretik. 12. Ordena *bixitatu* ondoren.

OARPENAK

1. Azkespen Orokoña (Absoluzio Generala) barkapen osoa daraman *Bendizio* bat da.

2. Irugaíengoai emanik dagon Azkespen Orokor au Garbitokiko Animen alde irabazi diteke (1).

3. Bera irabazteko baldintza oek bete bear dira: aitortza, Jaunartze ta Aita Santuaren naierako otoi-egitea (2). Agirian ematen bada, Aitagurea (3).

4. Irugaíen batzaíean ematen bada, emaleak Senidetzako batzar-buru izan bear du. Bakaía baldin bada, ta aitorlekuan (konfesionarioan), *konfesoreak konfesio* ondoren eman dezake (4).

5. Praíle-nagusiak beren mendekoai eman dezaioteke eskubidea, konfesoré izendatuak ezpadira-ere, beren elizetan Azkespen orokoía emateko (5).

6. Azkespen Orokoía artzeko Irugaíengoak egun jakiñean baturik baleude, ta ortarako eskubidea duan apaizik ez balego, edozein apaizek, praílea edo ez

(1) *Act. Ord. Min.*, XXV (1906), 340 oñaldean.

(2) *Summarium... Tertii Ordinis*, I, II.

(3) *Rituale R. S.*, T. I, c. IV.

(4) *S. C. Indulg.*, 1886, ad III.—*Act. Ordinis Min.*, V (1885), 183; X (1891), 143-144 oñaldetan.

(5) *S. C. Offi.*, 1814.—*Act. Ord. Min.*, XXXIII (1914), 236 oñaldean.

— 33 —

prailea *konfesorea* izan ezkero, Azkespen Orokor ori eman dezake (1).

7. Azkespen Orokoña artzeko garaia ez da izendatutako eguna bakarik, baita urango zazpi egunak ere (2). Asko bada egun aurreko aratsaldetik, bakara bada goizean *konfesatu* ondoren (3).

8. Emateko *estola moria* jantzita *Ritual*eko Añendiak esan bear dira, *Intret...* Bakarik aitorlekuan badago, ta *konfesoreak* aldirik ez auxe esango du:

«*Auctoritate a Summis Pontificibus mihi concessa, plenariam peccatorum tuorum indulgentiam tibi impertior. In nomine Patris † et Filii et Spiritus Sancti. Amen*» (4).

9. Senidetza bati Azkespen Orokoña (Absoluzio Generala) emateko eskubidea baldin badu apaiz batek, berak ere ira-

(1) S. C. Offi., 15 d. 1910.—Act. Ordinis Min., XXX-1911.

(2) Benedicto XV, *Quae omnia*, 1917.—Acta Ordinis Min., XXXVI (1917).

(3) S. C. Indulg., 1895.—Act. Ord. Min., XIV (1895). S. C. Indulg., 1888.—S. C. S. Offi., 1913.—Acta Ordinis Min., XXXII (1913).

(4) S. C. Rit., 1915.—Act. Ord. Min., XXV (1906).

— 34 —

bazten du, berari nork emanik ez badu (1).

10. Azkespen Orokoña ematen danean, batzañean dauden Irugañengo guztiak irabazten dute, naiz *norbait* kanpokoa izan (2).

AITA SANTUAREN BENDIZIOA

(BENDICIÓN PAPAL)

Leon XIII'gañenaren esku-zabalez Iru-
gañengoak artu dezateke urtean bi aldi-
tan barkapen osoa daraman Aita Santua-
ren *Bendizioa*. «Universi» 1882-ngo, Uz-
tailaren 7'an.

OARPENAK

1. Egun batean bi alditan ezin diteke eman.

2. Batzar-zuzendariak nai duan egu-
netan eman diteke; ez baña *Obispo* jau-
nak ematen duan egun eta leku berean.

3. *Bendizio* onek daraman barkapena irabazteko aitortza, Jaunartzea ta Aita Santuaren naierako otoi-egin bear da.

(1) S. C. *Indulg.*, 1900.—*Act. Ord. Min.*, XIX (1900).

(2) S. C. *Indulg.*, 1896.—*Act. Ord. Min.*, XV (1896).

— 35 —

4. Uruti xamar bizi diranak ezin eldu balitezke elizara, *Bendizioa* ematen dan egunetan, onen ordezt, Azkespen Orokoña artu dezateke noiznai *konfesio* ondoren (1).

5. Azkespen Orokoña eman dezateken guztiak, eman dezateke ere *Bendizio* au.

LEGAZKA TA NEKE-AZKESPENAK
(PRIBILIJIO TA INDULTUAK)

1. Irugañen Ordenako apaizak, naiz *nobizioak* izan, astean iru egunetan al-dare *pribilejiatua* daukate, *grazi* au bes-te bidetik ez badute beintzat.

2. Edozein apaizek, naiz Irugañengoa izan, naiz ez, Iru Ordenetako ilen alde meza ematen duanean al-dare guztiak *pri-bilejiatuak* ditu; au da barkapen osoa irabazten da animen alde.

3. Irugañengoak gaixo egonik etxetik ezin eñaz atera ditezkenean, edozein Iru Ordenetako elizetan irabazi ditezken bar-kapenak irabazi ditzateke bost Aitagu-re... esateakin, eta bat Aita Santuaren naierako (2).

(1) *S. C. Indulg.*, 1893, ad XIV.—*Act. Ord. Min.*, XII (1893).

(2) *Summarium... Tertii Ordinis*, cap. V, 4.—*Act. Ordinis Min.*, XX (1901).

— 36 —

4. Irugañen Ordenako eskapularioa, *habituaren* ordez jazten dan eskero, ezin diteke bere ordez *medala* ibili (1). Baña grazi bereziz Zuzendariak artu dezake bidea bañengo *eskapularioa* ta sokatxoa utzita *medala* erabiliazteko... Ontarako bultzagai aundia bear da (2). Eta ez da *medala* lepotik zintzilik eraman beařík.

5. Eskapularioak zakelean edo soñoan ibiltzeak ez du balio (3) bañengo soñekoan azpitik edo gañetik ibili bear dira (4).

6. Irugañengo *nobiziuak* aztuta edo zabarketiz utziko balute *eskapulario* ta sokatxoa soñean eramaten, edo-ta, ezin dutelako, ez dute *nobiziadua* galtzen, *profesa*-egiteko asmoa duten artean (5).

7. Urtietan *eskapulario* ta sokatxo gabe ibili dan Irugañengoak, beřiz justia aski du, beřiz Ordenako irabazietan sartzeko (6).

8. Senidetza batean sartuak diranak,

(1) Decret., 1900.

(2) Pío XI, 25 de Marzo 1932.

(3) Decret., 1740'gañen urtean.

(4) Decret., 1855'gañen urtean.

(5) S. C. *Indulg.*, 1903.—*Act. Ord. Min.*, XXII (1903).

(6) Decret., 1857'gañen urtean.

bestean *profesa* egin dezateke, beriz urtea bete beařikabe.

9. Baita mendetasun batetik ere bestera aldatu litezke, ofetarako bidezkoa danean; au da Aita Kaputxinoen mendetasunetik Praile Txikařen (Prantziskanoen) mendetasunera, beriz *nobiziaduan* sartuta *profesa* egin gabe (1).

10. Irugařen Ordenakoak beste Anaidi edo kofradetakoak bařo lenago dira: au dala-ta guztien atzetik juateko esku-bidea dute *prozesioetan* (2).

11. Pio X'gařenak 1909'ngo. Maiatzaren 5 eta 17 eman zuan graziz Irugařen Ordenakoak beste bi Ordenakoakin alkartasun osoa bai dute. Au dala-ta Praile Txikařak, Kaputxinoak, Konbentualak, Klaratařak, Konzezionistak, Ursulinak, Misionerak egiten dituzten egite onetan sartzen dira Irugařengoak. ¡Au bai dala irabaztea! Lenengo Ordenakoak 30.000 ta geiago dira, Klara donearen mojak 15.000. Irugařen Ordenako mojak, 47.000. Munduan beren etxeetan

(1) S. C. *Indulg.*, 1903-ngo., Epailaren 4'an. — *Acta Ord. Min.*, XXII (1903).

(2) Can. 706.

bizi diran Irugaíengoak miloika... Zenbat penitentzi ta zenbat eginkizun on egingo dituzte anima oriek guztiak? Oía bada zein irabazi aundia daukan Irugaíengoak.

12. Baña *pribilejiorik* aundien aundiena zerua da. Ondo betetzen badegu Araudiak (Eíeglak) agintzen diguna: gure eginbeaíetan zintzoak baldin bagera zerua eskier (ziur) gure eskutan daukagu. Ez gaitezen aztu *profesa* egin ondoren esaten zaizkigun itzetzaz:

«Baldin agindu oek betetzen baditzu, nik Jaungoikoaren izenean betiko bizitza agintzen dizut: Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen».

Eskeíak emaiozkagun bada Jaungoikoari Ordena done onetara ekaíi gaitualako, ta *eskapulario* ta sokatxoari beti mun-egiñaz beíitu ditzagun saíitan gure Aita Prantzisko donearen seme zintzoak izateko asmoak.

GURE AITA PRANTZIZKO'RI EMANDAKO
GRAZI BEREZIAK.

Jesukristo gure Jaunak Aita Prantzisko doneari eman zizkan grazien artean,

berezienak zazpi oetxek dira, IX Gregorio Aita Santuak dionez. Berak Prantzisko'ren aotik artuak ditu. Ordenaren asieratik alaxe sinistu izan da (1), eta Aita Santuak eta Ama Eliza doneak onez artu dute au sinisliei erakustea.

Ona emen zeintzuek diran:

1. Iru Ordenetako seme-alabak, bere Ordenen maitale ta ongileak beren animen salbazioa iritxiko dutela; pekatari aundia izana'ren, damutu ta bere obenak (pekatuak) aitortzeko astia izango dute-ta.

2. Munduaren azkenarte bere Iru Ordenak iraungo dutela.

3. Bere Ordenan gaizki bizi nai dute-nak, luzaro bertan ezin iraun dezatekela.

4. Bere Ordenako soñekoakin ez dala oben aztunakin iñor ilko.

5. Zenbat eta praile geigo diran bere Ordenan, orduan eta Jaunak *limosna* geiagokin begiratuko diela.

6. Bere Ordenen gaizkileak gogorki zigortuak izango dirala ta laister eta gaizki ilko dirala.

(1) Aita Kornejo, Ordenako edestian, l. atalean. 4^o garfen liburuan, XXII eta XXVI.

7. Araudiaren aginduak ondo betetzen dituztenak, goi-argi asko ta aundiak izango dituztela okerbide ta obenetik aldeegiteko, ta lurbira au eriotz on batez utzirik, ez dirala Garbitokian luzaro egongo.

Graziok Jesus'en Biotzak, Karmel'go Ama'k, eta abar egindako aginduak bezela, bear diran baldintzakin artu bear dira.

Ez da gutxi baña, Prantzisko doneak agertzen diguna, au da: bere seme-alabak eta bere Ordena maite dutenak, ez dirala pekatuan ilko, Jaungoikuak aldi ta grazia emango dielako.

Oroigaría da ere Aita Prantzisko doneak zerura joan da gero bere semieta-ko bateri esan ziona: «Begira seme: jakin bear dezu, Alberna-mendian Kristo'k bere Zauriak ezaí zizkidanean auxe esan zidala: Prantzisko, Nik nere Zauriak ezaí dizkizut nere ikuñitzain izan zaitezen, eta Nik, ilda gero, Linbora jetxirik, ango animak onez atera nituan bezela, nere *Pasio* donearen bidez eta irabaziz nai det, zu ere il ziñan egunean (Uñilaren 4'an) Garbitokira jetxi zaitezela, an dauden zure Ordenako seme ta

— 41 —

ongileak andik ateratzeko, nere Nekaldiaren maitatzalea zeran eskero, nere garaipenean ere nere lagun izan zaitezten (Loratxuak, 220). Bai dira esaten dutenak ere (1) Porziunkula egunez eta Agofaren 17'an Prantzisko donea Garbitokira jeixten dala, ta Lisboa'ko Aita Markos'ek dio beñiz, Santu onen Zauriak indar bera dutela, ta ez dala egunik Prantzisko donea Ama Maria'kin Garbitokira jeixten ez danik, bere semeak eta bere Ordenako ongileak zerura eramateko, ta gertaldi askokin au adierazten du.

Izan gaitezen bada Prantzisko donearen seme zintzoak eta bere Ordenaren ongileak.

LAUS DEO

G E I K I A

OARPENAK

1. Aita Prantzisko donearen Irugañen Senidetza Jaungoikoa obeto goraldtu ta

(1) Pisa'ko Aita Bartolome «De conformitatibus», etc.

maite izateko irasi (egina) izanik, Iruga-fendañak goizetik gauera ta beti Jaungoikoaren aintza gogoan eta biotzean euki bear du. Beraz oetik jaiki bezin laister, bere Aita Prantzisko donearekin esan beza: «¡Nere Jaungoikoa ta nere zerguztia!» (50 egko. bark.) eta gurutzearen zinalea egiñik, mun-egin bezaie soñean dauzkan eskuplario ta sokatxoari. Gero garbitzen ari dan bitartean, edo belauniko, eskeñi bitzaizkio, Jesus'en Biotzari egun artako gogapen, naiki, itz eta egintza guztiak, beraren aintzarako, pekatarien eta Ama Elizaren onerako... esan bezaizkio Ama Maria'ri iru Agur Maria, ta Jose doneari, Aita Prantzisko dotsuari ta Aingeru Zaindariari... Aita-gure bana.

2. Efégleak esaten du aldutenak egunero meza santua entzuteko. Asko dira meza santua entzun dezatekenak ere entzuten ez dutenak. Ez dira oroitzen nonbait, meza santua dala munduan dan gauzarik aundiena. Egunero mezatara diranak, Benardo doneak dionez, geigo merezi dute Jaungoikoaren aúrean, urte osoa ogi ta ur utsaz barau egin, eta gorputza *dizipliñaz* urátuta baño.

3. Egunko arazoetan ez du aztu bear Jaungoikoaz Irugañengoak. Bere biotza sañitan jaso bear du Beragana. Aita Prantzisko donearekin esanaz: «¡Nere Jaungoikoa ta nere zer guztia!» edo-ta. «¡Maitasuna ez da maite. Maitasuna ez da maite». «Jesus eñuki nitzaz» Leonardo doneak esaten zuan bezela.

4. Betarik baldin badu egunero irakurri beza Aita Prantzisko'ren Loratxueta-tik edo bere Bizitzatik zerbait: ta eraspen bizia izan bezaio, berak bezela Aldareko Sakramentu Santuari, Jesus-Aurari, Jesus'en Biotzari, Jesus'en Nekaldiari (Pasioari) ta Ama Maria'ri... Egunero «familiar» esan beza bost edo zazpi amañeko agurtza (eñosarioa).

5. Zerbait egin al balezake, ez du eskuak lotuta egon bear Irugañengoak; *apostolua* izan bear du itzez eta egitez, eñuki-egintzetan batez ere.

6. Gabean eskeñak eman bezaizkio Jaungoikoari egunaren buruan egin dizkion mesedeakatik: aztertu beza bere baitan, damu izan beza bere utsegiteagatik, eta Jesus, Maria ta Santuen eskuetan bera anima jañirik, lotaratu bedi Jaungoikoaren pakean.

AITA PRANTZISKO

DONEAREN

ONESPENA



Jaunak bedeinka ta zaitu zaitzala, bere arpegia agertu dezaizula, ta zutzaz eruki izan dezala. Samurki begiratuta pakea eman dezaizula.

Jaunak bedeinka zaitzala T.

EDESTIA

Aita Serafindar Prantzisko donea Alberna mendian arkitzen zala bere arkaitzulatorik aundienean Migel goi-aingeruaren garizuma egiteko, berari lagun egitera mendi santu artara igo zan bere ikaslarik kufunenak, Leon anaiak, eundalako zirikaldia nabaitu zuan, eta

etzion iñori agertu nai izan zirikal-di au. Baña bere aitaren sari-irabazietan zuan ustea aundia zan, eta bere eskuz idatzitako zerbait eukitzeko naiki sutsuak artu zuten.

Aita Prantzisko'k goi-argiz bazekian zer gertatzen zitzaion Leon anaiari, ta lañuki-me batean idatzirik beste aldi batean Jaungoikoak Moises'i eman zion onespina: *Jaungoikoak bedeinka zaitzala...* beste itzak geituaz: *Jaungoikoak bedeinka zaitzala, anai Leon eta Tau (T) gurutze irudiz zirimañakatu zuan, eta eman zion esanaz: Artzazu idazki au, ta gorde ezazu zure bixtaldi guztian.* Afezkero Leon anaiaren gogoa (espíritu) pakean gelditu zan.

Sinisle guztiei otoi-egiten zaie onespen au berekin eramateko; esaten danetz, ezagututa dago afigafia dala deabru ta zirikaldien kontra, tximist, gaitzaldi, biotz-min, itxaso afisku, etsaien maltzurkeri, ekaitz, su-bolada, ustegabeko eriotz, aur-min, eta beste ezin zenbatu ala gaitz eta afiskuetatik onez ateratzeko.

A. M. D. G. et B. P. N. F.

— 46 —

IRUGAREN ORDENAN SARTZEKO (1)

G. ¿Zer eskatzen dezu, anai (aíeba)?

E. Aita, nere salbazioa eíazago irixteko Penitentzizko Irugañen Ordenako jazkia (habitua) apalki eskatzen det.

A. *Deo gratias.*

PROFESATZEKO

G. ¿Zer eskatzen dezu, anai (aíeba)?

E. Aita, Prantzisko santuaren Irugañen Ordenan profesatzia eskatzen det, Ordena onetan eriotzarte Jaungoikoaren mirabe izateko.

A. *Deo gratias.*

ERA

Nik, N. N. Jaungoiko Alguztidunaren aúean, eta Orbangabeko Birjiña Maria Doatsuaren, Aita Prantzisko dontsuaren eta Santu guztien *gloriarako*, itz-ematen det, nere bizitza guztian gordeko ditu-

(1) Ex Rituali Rom-Seraph.

dala Jaungoikoaren *Legeko Aginduak*, eta Aita Prantzisko doatsu berak ipiñitako Irugañen Ordenako *Eregla*, Laugañen Nikolas eta Amairugañen Leon Aita Santuak legetu duten eran.

Orobat agintzen det *Ereglaren* kontra egiten ditudan utsegiteagatik ematen zaidan *penitentzia* beteko dedala *Bixitatza-leak* nai duan bezela.

A. Aginduok baldin betetzen badituzu, nik Jaungoikoaren izenean, betiko bizitza eskeintzen dizut. Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

— 48 —

Imprimi potest
San Sebastián 9-XII-1931
Fr. Julius Eguíluz
M. P.

Nihil obstat
Victoriae 18 Februarii
Censor
Emmanuel de Lecuona

Leído y examinado de Nuestra orden el presente Reglamento de la V. O. T. de S. Francisco y la relación de indulgencias consignada a continuación del mismo, venimos en conceder y concedemos la aprobación que de los mismos se ha solicitado y damos Nuestra licencia para que puedan ser impresos y publicados.

Vitoria 23 de febrero de 1932

Dr. Justo de Echeguren

Por mandato del M. I. Sr.

Vicario General

Jaime Berástegui

Arc. Scio.